

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

411/2024 Foru Agindua, uztailaren 4koa. Behin betiko onestea, Donemiliagako udalerriko arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualaren espedientea

Otsailaren 5eko 40/2024 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Donemiliagako udalerriko arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualaren espedientea.

40/2024 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen haiek zuzendu eta gero espedientea foru aldundiari igorri beharko zitzaiola, jendaurrean jartzeko izapidea berriz egin beharrik gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

2024ko ekainaren 6an, erregistro elektronikoan sartu zen, aldundiko plangintza plataformaren bidez, espedientearen zati den testu bateginaren dokumentua.

Aurkeztu den dokumentazioa aztertutik, egiaztatu da zuzenduta daudela aipatutako foru aginduan adierazitako alderdiak.

Horrenbestez, nire eskumenekoak diren ahalmenak erabiliz, Arabako Foru Aldundiko 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen urtarrilaren 30eko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 1/2024 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea bete direla Donemiliagako udalerriko arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betiko onetsi zuen otsailaren 5eko 40/2024 Foru Aginduan ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzaren administrazio erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 4a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduren Saileko diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Donemiliagako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan inskribatu zen 2024ko martxoaren 15ean, 2024/14 erregistro zenbakiarekin.

R 6.1 ZONA	
Antolamendu sistema: BERARIAZKO BOLUMETRIA	Erabilera BIZITEGIA
ERABILERA XEHEAK ETA ERAIKIN MOTAK	orokorra: Bizitegia (6) 1.1- 1.2.1- 1.2.3- 1.3- 1.5- 2.1- 2.2.1- 2.3- 2.5- 3.1- 3.2- 3.3 motetan
BEREZKOAK	162. artikulua
BATERAGARRIAK	162. artikulua
OSAGARRIAK	4.6 - 7.5 - 8.1.8
GALARAZIAK	GAINERAKOAK
ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK	
HIRIGINTZAKO PARAMETROAK	
Gehieneko eraikigarritasuna	Dauden eraikinei dagokiena oin berrikoak ez diren esku-hartzeetan. Oin berrikoetan 1 m ² /m ² , eta ezingo dira honako erabileren arabera eraikigarritasuneko koefizienteak gainditu: bizitegia (0,25 m ² /m ²), ekipamendua (0,75 m ² /m ²), nekazaritza biltegiak (0,60 m ² /m ²), bestelako erabilerak (0,25 m ² /m ²). Ikus Ordenantzetako 103. artikulua (1)
Ereduzko etxebizitza modulua	Gainerako parametroen arabera. Ikus ordenantzetako 106. artikulua
ERAIKUNTZA PARAMETROAK	
Aurrealdeko muga	Gutxienez 10 m erabilera orotarako, etxebizitzetarako izan ezik, halakoetarako etxebizitzako 10 m izango baita. Dauden lurzatietan dagoena, gutxienekoaren azpitik. Ikus ordenantzetako 108. artikulua.
Gutxieneko lurzatia	750 m ² edozein erabileraerarako, bizitegi erabileraerarako izan ezik, halakoetan etxebizitzako 750 m ² izango baita, binakako etxebizitzetarako dagokienez izan ezik, arau subsidiario hauek behin betiko onesteko unean dauden 1.000 m ² edo gehiagoko azalera lurzatiaren jarri ahalko baitira. Arau subsidiario hauek onesten diren datan dagoena, txikiagoa balitz. Halakoetan, gehienez ere etxebizitza bat eraiki ahalko da, 1.3, 2.3 eta 3.3 motak izan ezik. (Azalera murrizten ez duten mugak erregularizatu ahalko dira). Ikus ordenantzetako 109. artikulua eta hurrengoak. (1)
Okupazioa	Ehuneko 50 gehienez, nekazaritza biltegiarako izan ezik; halakoetan, ehuneko 60 onartzen da. Ikus ordenantzetako 120. artikulua.
Gehieneko garaiera	Oin berriko esku-hartzeetarako, 7 m gehienez. Gainerakoetarako, dagoena. 3,50 metrotik gorako solairu bakarra. eraikiz gero, bolumena bistarako zatituko da, osaketa irtenbideen bidez. Ikus ordenantzetako 125. artikulua.
Garaiera guztira	10,50 m gehienez. Ikus ordenantzetako 125. eta 128. artikulua
Solairu kop.	Bi gehienez, gehi estalkiarte. Dagoena, gehiago badira. Sotoak eta erdi-sotoak onartzen dira, fatxadaren islatzen ez badira. Ikus ordenantzetako 126. artikulua.
Eraikinen arteko tartea	Ez dago mugaturik. Ikus ordenantzetako 117. artikulua.
Atzeraemate.	Planoetan adierazitakoez gain, oin berriko esku-hartzeetarako honakoak beteko dira: 2 m lerrokadurera eta 3 m bestelako mugetara mota bakartu eta parekatuetarako eta mehelinen artean atxikirik ez dauden mugetan. Ikus ordenantzetako 116. artikulua. (2)
BERARIAZKO ORDENANTZAK:	
1) Arau Subsidiariook onartutako datan dauden lurzatietan, edozein erabileraerarako 162 m ² eraiki ahalko da, eraikigarritasun koefizienteak aplikatuta azalera txikiagoa aterako balitz ere. Behe solairuko azalera gehienez ere 120 m ² -koa izango da. Ezingo da etxebizitza bat baino gehiago egon eta fitxa honetako gainerako baldintza guztiak beteko dira, atzeraemateak izan ezik, posible ez balitz. Erantsiz gero, baldintza orokorrak beteko dira.	
2) Ordenantza hau ez da aplikatuko mugakideen arteko adostasuna egonez gero, eta eskritura publikoan berretsi beharko da hura.	
3) Estalkiak makurtuta egongo dira.	
4) Lerrokadurari dagokionez, osaketako edo apainketakoak ez izan, honako itenguneak baino ez dira onartuko: balkoiak, balkoi jarraituak eta begiratokiak.	
OHARRAK:	
Erabileren zenbakietarako araudi honetako 80 eta 97. artikuluetako erreferentziak erabili dira.	